



Lehiaren  
Euskal Agintaritza

Autoridad Vasca  
de la Competencia

## EBAZPENA

### 2/2013 espedientea, BIDASOA BEHEREKO EHORZTETXEAK

#### Aurkibidea:

I. AURREKARIAK.....	1
II. ENPRESAK.....	4
1. Tanatorio del Bidasoa SA .....	4
2. Funeraria Hondarribia SL.....	6
3. MJGP. OCASO konpainiako agentea .....	6
III. JOKABIDEAREN DESKRIBAPENA .....	7
IV. ZUZENBIDEKO OINARRIAK.....	8
1. Itun bidezko amaieraren lege-oinarria.....	8
2. MJGPk aurkeztutako konpromisoen azterketa .....	9
3. TABISAK aurkeztutako konpromisoak.....	13
4. Aurkeztutako konpromisoen buruzko ondorioak .....	15
V. EBAZTEN DU .....	17
1. eranskina: MJGPren KONPROMISO-PROPOSAMENA.....	18
2. eranskina: TANATORIO DEL BIDASOA Saren KONPROMISO- PROPOSAMENA. ....	20

#### Osoko Bilkura

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, lehendakaria

Natividad Goñi Urriza, kontseilukidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kontseilukidea

Idazkaria: Alfonso Gómez Fernández jauna

1. Lehiaren Euskal Kontseiluak (LEK aurrerantzean), adierazi bezala eratuta 2016ko urtarrilaren 20an eginiko bileran, Ebazpen hau eman du 2/2013 espedientean (BIDASOA BEHEREKO EHORZTETXEAK).

### I. AURREKARIAK

2. 2013ko martxoaren 15ean, IGYk, Funeraria Hondarribia SLren (FUNERARIA HONDARRIBIA aurrerantzean) izenean eta haren ordezkari-lanetan, salaketa aurkeztu zuen Lehiaren Euskal Agintaritzan (LEA aurrerantzean). Salaketa –



askotariko dokumentazioa erantsita duena– hainbat enpresaren aurka aurkeztu da, eta, enpresa horien artean, honako hauek daude: Tanatorio del Bidasoa SA (TABISA aurrerantzean) eta Seguros Ocaso SA Compañía de Seguros y Reaseguros (OCASO aurrerantzean) (folioak: 11-82).

**3.** Ikerketako zuzendariak 2013ko martxoaren 27an emandako Ebazpen batean, informazio erresebatu bat hastea erabaki zen, Lehia Defendatzeko Legea (LDL aurrerantzean) hautsi izanaren zantzuak ikertzeko (folioak: 83-86)<sup>1</sup>.

Informazio erresebatuaren fasean, Ikerketa Zuzendaritzak (IZ aurrerantzean) informazioa lortzeko eta espedientearen dokumentazioa ofizioz txertatzeko hainbat eskaera egin zituen. Erantzunak espedientearen jasota daude (folioak: 87-89, 117-134, 90-92, 148-149, 93-103, 107-110, 113-116, 135-147, 151-850, 862-863, 1178-1238, 1254-1264).

**4.** 2013ko uztailaren 12an, zeuden zantzuak osatzeko, Ikerketako zuzendariak agindu bat eman zuen. Agindu horren bidez, espedienteak eraginpean hartutako honako enpresa hauen (besteak beste) lokaletan ikuskapen bat egitea baimentzen zen: Tanatorio del Bidasoa SA, Anaka kalea, 11, Irun; OCASOren Agentzia, Donostiako egoitza: Usandizaga kalea, 3-nagusia (Agentea: MJGP), eta OCASOren Agentzia, Irungo egoitza, Cipriano Larrañaga kalea, 2, behea. Baimen ofiziala lortu ondoren (folioak: 883.01-883.08), ikuskapena uztailaren 23an egin zen (folioak: 884-1028).

**5.** 2013ko irailaren 10ean, sumatutako jokabidea deskribatzen zuen ohar labur bat bidali zion LEAk Lehiaren Batzorde Nazionalari (LBN), dokumentazio lagungarri guztiarekin, Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenak koordinatzeko Legearen 2.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera<sup>2</sup>.

LEAk adierazi du eskumena duela jokabidea aztertzeko.

2013ko irailaren 26an, LBNren ofizio bat sartu zen LEAren erregistroan. Ofizio horretan, jasotako proposamenari jarraituz, LEA ere eskuduntzat hartu zen. Gainera, zehapen-espediente bat hasiz gero LBNren Ikerketa Zuzendaritza alderdi interesdun gisa onartzeko eskatzen zuten.

---

<sup>1</sup> Ikus abenduaren 22ko 39/2010 Legeak (BOE-A-2010-19703) aldatutako Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen (159. zenbakiko BOE, 2007ko uztailaren 4koa) 49.2 artikulua, martxoaren 4ko 2/2011 Legea (BOE-A-2011-4117) eta ekainaren 4ko 3/2013 Legea (BOE-A-2013-5940). \$\$\$ Testu bateratua: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2007-12946> (azken kontsulta 2015eko abenduaren 30ean).

<sup>2</sup> Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenak koordinatzeko otsailaren 21eko 1/2002 Legea (46. zenbakiko BOE, 2002ko otsailaren 22koa).



**6.** Informazio erresebatuaren aldiaren egindako ikerketatik, MJGPK –OCASOren agente eskusiboak–, OCASOK eta TABISAK lehia murrizten zuten jarduerak egin izanaren zantzuak ondorioztatu ziren.

Hori dela-eta, 2013ko abenduaren 17an zehapen-prozedura ireki zen LDLan debekatutako jokabideengatik MJGP, TABISA eta OCASOren aurka, ohiko prozedura-ondorioekin (folioak: 1265-1270).

**7.** 2015eko apirilaren 29an, espedientearen instrukzio-egileek Gertakariak Zehazteko Agiria eman zuten, eta, haren arabera, MJGP eta TABISA LDLaren 1. artikulua hautsi izanaren erantzuleak ziren (folioak: 2095-2116).

**8.** 2015eko maiatzaren 25ean, JLAk TABISAren izenean eta haren ordezkari-lanetan, eta IZSk MJGPren izenean eta haren ordezkari-lanetan aurkeztutako idazki bana sartu ziren LEAren erregistroan, eta, idazki horien bitartez, konpromisoa hartzen zuten, LDLaren 52. artikuluan ezarritakoari jarraituz, lehiaren gaineko ondorioak itun bidezko amaiera bidez ebazteko behar ziren konpromisoak aurkeztu eta beren gain hartzeko.

2015eko maiatzaren 25ean, probidentzia bat eman zen, eta, haren bidez, TABISAK eta MJGMk zehapen-prozedura itun bidez amaitzeko aurkeztutako jardunak hasteko eskaerak baiestea, prozedura ebazteko gehieneko epearen zenbaketa etetea eta eskatzaileei konpromiso-proposamen bat aurkezteko hamabost eguneko epea ematea erabaki zen. Probidentzia interesdun gutzietan jakinarazi zitzaizkien (folioak: 2324-2333).

2015eko ekainaren 5ean, MFEk FUNERARIA HONDARRIBIAREN izenean eta haren ordezkari-lanetan itun bidezko amaieraren onarpenaren inguruan aurkeztutako alegazio-idazkia sartu zen LEAren erregistroan (folioak: 2337-2347).

2015eko ekainaren 9an, konpromisoak aurkezteko epea hilabete batez luzatzeko probidentzia eman zen (folioak: 2359-2360).

**9.** 2015eko uztailaren 10ean, PPRk TABISAren izenean eta haren ordezkari-lanetan aurkeztutako konpromiso-proposamena sartu zen LEAren erregistroan (folioak: 2386-2390).

2015eko uztailaren 15ean, IZSk MJGPren izenean eta haren ordezkari-lanetan aurkeztutako konpromiso-proposamena sartu zen LEAren erregistroan, uztailaren 10ean posta-bulego batean aurkeztu ondoren (folioak: 2391-2396).

2015eko uztailaren 28an, probidentzia bat eman zen; haren bidez, MJGPK aurkeztutako konpromiso-proposamena baztertu zen detektatutako lehia-arazoak behar bezala ez ebazteagatik, eta hilabeteko epea eman zitzaion



proposamen berri bat aurkezteko (folioak: 2397-2399). Probidentzia hori 2015eko irailaren 2an jakinarazi zen, bigarren ahaleginean (folioa: 2429).

2015eko irailaren 22an, IZSk MJGPren izenean eta haren ordezkari-lanetan sinatutako konpromiso-proposamen berria sartu zen LEAren erregistroan, irailaren 18an posta-bulego batean aurkeztu ondoren (folioak: 2435-2441).

**10.** 2015eko irailaren 29an, konpromiso-proposamenak LEKi (jakinaren gainean egon zedin) eta alderdi interesdunei (hamar eguneko epean bidezkotzat hartzen zituzten alegazio guztiak aurkez zitzaten) bidali zitzaizkien (folioak: 2447-2451).

2015eko urriaren 9an, probidentzia bat eman zen, eta, haren bidez, FUNERARIA HONDARRIBIARI itun bidezko amaierarako konpromisoen aurkako alegazioak aurkezteko emandako epea lau egun baliodunetan luzatzea erabaki zen (folioak: 2470-2471). 2015eko urriaren 13n, probidentzia bat eman zen, eta, haren bidez, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari (MLBN) itun bidezko amaierarako konpromisoen aurkako alegazioak aurkezteko emandako epea bost egun baliodunetan luzatzea erabaki zen (folioak: 2475-2476).

2015eko urriaren 16an eta 20an, MLBNk eta MFEk (azken honek FUNERARIA HONDARRIBIAREN izenean eta haren ordezkari-lanetan) TABISAren eta MJGPren konpromisoen aurka aurkeztutako alegazio-idazkiak sartu ziren, hurrenez hurren, LEAren Erregistroan (folioak: 2479-2482 eta 2483-2494).

**11.** 2016ko urtarrilaren 12an, LDLaren 52.1 artikuluan eta Lehia Defendatzeko Erregelamenduaren (LDE aurrerantzean) 39.5 artikuluan ezarritakoari jarraituz, Ikerketa Zuzendaritzak itun bidez amaitzeko erabaki-proposamen bat igorri zion LEKi, TANATORIO DEL BIDASOA SAK eta MJGPk aurkeztutako konpromisoak egokiak zirela, espedientea izapidetzean ikusitako lehia-arazoak konpontzen zituztela eta interes publikoa bermatuta geratzen zela irizita<sup>3</sup>.

## II. ENPRESAK

### 1. Tanatorio del Bidasoa SA

**12.** Enpresa honen izen komertziala TABISA da (IFK: A20366027). Honako helbide hau du: Anaka kalea, z.g., Irun, Gipuzkoa.

Enpresaren helburu soziala ehorzketa-jarduerari lotutako zerbitzuak ematea da. Operazioen hasiera-data 1991ko martxoaren 20a da (folioak: 15 eta 103).

---

<sup>3</sup> Otsailaren 22ko 261/2008 Errege Dekretua, Lehia Defendatzeko Erregelamendua onartzen duena (50. zenbakiko BOE, 2008ko otsailaren 27koa).



Hirigunean kokatuta dago, eta Ordezkaritza bat dauka Hondarribiko udalerrian (San Pedro kalea, 49; PK: 20280) (folioak: 100 eta 133).

**13.** Merkataritza Erregistroko 2013ko martxoaren 11ko inskripzioari jarraituz (folioak: 13, 14 eta 103), enpresako administrazio-organoen eta ahaldunen artean honako pertsona hauek zeuden, besteak beste:

- AGS (IFZ: XXXXXXXXX), administratzailea eta kontseilaria (inskripzio-datak: 1991/10/08 eta 2013/01/02).
- JMGS (IFZ: XXXXXXXXX), administratzailea eta ahalduna (inskripzio-datak: 1991/10/08 eta 1991/05/27); kontseilaria eta lehendakaria (inskripzio-data: 2001/10/08; inskripzio-data berria: 2013/01/02).
- EPE (IFZ: XXXXXXXXX), ahalduna (inskripzio-data: 2007/03/02); idazkaria eta kontseilaria (inskripzio-data: 2013/01/02).
- FJSA (IFZ: XXXXXXXXX), kontseilaria eta kontseilari delegatua (inskripzio-data: 2013/01/02).

Enpresaren Akzio Izendunen Erregistro Liburuaren arabera (folioa: 1823), enpresaren titulartasuna honako jabe hauena da:

GAURKO INTERDIMAN SL	% 31,268	EMGP	% 0,200
JMGS	% 15,034	JJGP	% 0,200
AGS	% 15,634	MJGP	% 0,200
Autozorroa	% 11,330		

Titulartasunaren gainerakoa beste pertsona fisiko batzuei eta beste pertsona juridiko bati dagokie, ehuneko desberdinekin (% 10,423, % 3,221, % 3,090, % 3,090, % 3,090, % 1,030, % 0,815, % 0,560, % 0,544, % 0,091, % 0,090 eta % 0,090).

EM, JJ eta MJGP anai-arrebak 2013ko maiatzaren 16an bihurtu ziren beren akzioen titular, haien aita JMGSk transmititu zizkienean (folioa: 1878)<sup>4</sup>.

MJGP TABISAko % 0,200en titularra da. Haren anaiak (JJGP eta EMGP) ere % 0,200en titularrak dira, aitari (JMGS) % 15,034 dagokio, eta AGS izeba % 15,634ren titularra da.

Beraz, TABISA enpresaren % 31,26 OCASO konpainiako agente eskusibo MJGPrez zuzeneko senideen titulartasuna dela ondoriozta daiteke (folioa: 1823).

**14.** TABISA ehorztetxea ez da OCASO enpresari lotutako enpresa bat.

<sup>4</sup> FUNERARIA HONDARRIBIAK LEAn aurkeztutako salaketaren ondorengoa da transmisioa.



## 2. Funeraria Hondarribia SL

**15.** Enpresa honen izen komertziala TANATORIO TXINGUDI da (IFK: B75028571). Honako helbide hau du: Txiplao Industrialdea, 19, Hondarribia, Gipuzkoa. 2010eko ekainaren 25ean eratu zen, eta ehorzketa-zerbitzuak kudeatu, garatu eta ustiatzea du helburu sozial (folioa: 1089). 2012ko maiatzean jarri zen abian, eta 2012ko ekainaren 3an eman zuen lehen zerbitzua.

Hondarribiko udalerrian beilatokia duen ehorztetxe bakarra da.

## 3. MJGP. OCASO konpainiako agentea

**16.** MJGP (IFK: XXXXXXXX N) OCASO konpainiako agente eksklusiboa da.

Haren agentzia Donostiako Usandizaga kaleko 3. zenbakian kokatuta dago, eta honako erregistro-kode hau du (2007ko abenduaren 18koa): CO13315963461N<sup>5</sup>.

Donostiako agentziaren mende dagoen azpiagentzia bat du Irunen (Cipriano Larrañaga kalea, 2, behea) (folioa: 1027).

**17.** JMGS, MJGPren aita, Ocaso konpainiari atxikitako agente izendatu zuten Donostian, 1982ko urtarrilaren 1ean, haren aita (eta MJGPren aitona) ordezkatzeko (folioak: 1684-1691). Une horretan, subrogatuta geratu zen atxikitako agente izendatzeko 1954ko ekainaren 9an sinatutako kontratuaren eta haren eranskinaren eta gehigarrien ondoriozko eskubide eta betebeharrak guztietan.

MJGP subrogatuta geratu zen adierazitako kontratuan, eta atxikitako agente izendatu zuten Donostian, 2006ko urtarrilaren 1ean (folioa: 1686).

Familia-harremanak eragin komertzial handia du, espediente honek eraginpean hartutako ehorzketa- eta aseguru-zerbitzuetan diharduten enpresek eta agenteek elkarri bidalitako mezu elektronikoetan egiaztatuta geratu denez.

**18.** Agentzearen eta OCASOren arteko harremana ezartzen duten kontratu-dokumentuak honako hauek dira:

- Ocaso konpainiari atxikitako agente izendatzeko kontratua, 1954ko ekainaren 9an sinatua;
- Aurrekoaren eranskina, 1973ko ekainaren 26koa, eta gehigarriak, 1980ko urtarrilaren 1ekoa eta 1981eko otsailaren 1ekoa;

---

<sup>5</sup> Aseguru Agente Esklusiboen Erregistroko eta Gipuzkoako Aseguru Artekarien Elkargoaren datuak dira (folioak: 105, 97 eta 923-924).



- Ocaso konpainiari atxikitako agentearen izendapena, 1982ko urtarrilaren 1ekoa; horren bidez, kontratuaren ondorengoaren izendapena erabaki zen;
- 2005eko abenduaren 14ko Erabakia, MJGP eskubide eta betebeharrak guztietan subrogatzen duena eta ondorioak 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera dituenak.

Atxikitako agente izendatzeko kontratuaren 3. artikuluari jarraituz, agenteak aseguru-konpainiako ordezkari gisa jardungo zuen, eta artikuluko horretan zerrendatutako konpromisoak hartu zituen (folioa: 1690).

1973ko ekainaren 26an atxikitako agente izendatzeko izenpetutako kontratua garatzen duen Eranskinaren bosgarren atalean, agentearen ahalmenak daude jasota. Atal horretan ezartzen denez, agenteak ahalmena du konpainiaren izenean Agentziako aseguratuentzat ehorzketa-zerbitzuak bere ustez egokiena den herriko ehorztetxearekin kontratatuzeko (folioa: 1683).

### III. JOKABIDEAREN DESKRIBAPENA

**19.** Espedientean jasota dauden gertakarietatik ondoriozta daitekeenez, MJGPren ustez Funeraria Hondarribia enpresak OCASO konpainiak kontratatutako zerbitzuaren prestazioaren kalitate-estandarri erantzuteko beharrezkoak diren baldintzak betetzen ditu (folioak: 1546-1548).

**20.** OCASOren eta TABISAren agentzietan egindako ikuskapenetan lortu ziren e-mail batzuen kopietatik, MJGPk eta TABISAk azken horri lehiakideen aldean mesede egiteko estrategia zutela ondoriozta daiteke.

**21.** MJGPk (OCASOko agente eta TABISako akziodun denak) TABISAren lehiakidea den enpresa salatzailearen prezioei buruzko informazioa helarazi zion TABISARI, eta lehentasunezko merkataritza-baldintzak aplikatu zituen.

**22.** Espedientetik ondoriozta daitekeenez, merkaturuan sartutako enpresaren aldean enpresa inkunbenteari mesede egiteko jardunbideak egin ditu agenteak, bi enpresen prezioen arteko aldeetatik lehen enpresarekiko kontratuak erabiltzaileentzat eta aseguru-konpainientzat onuragarriagoak izango baziren ere.

**23.** Formalki, erabiltzaileek eskubidea dute aseguru-konpainiak hautatutakoak bestelako ehorztetxe bat aukeratzeko. Hala ere, ehorztetxeek partikularrei emandako zerbitzuen prezioen eta aseguru-konpainiei aplikatutako prezioen arteko aldea dela-eta (% 100 baino handiagoa), praktikan ezinezkoa da baliatzea aseguratuak kudeaketak beren kabuz eta dirua aurreratuz egiteko duten aukera teorikoa (folioak: 1241-1246, 1825, 1738-1740, 2019, 2020, 2022-2026, 2087-2094).





Gainera, primen kalkulua merkatuko batez besteko balioak kontuan hartuta egiten da. Kasu honetan ezarritako sistema eragingarria da ehorztetxeek beren zerbitzuak aseguru-etxeak estalitako prezioan eskain ditzaten, bezeroak erakartzeko lehiari aritu eta prezio lehiakorragoak eskaini ordez.

**24.** MJGPK bere konpainiarentzako gutxieneko prezioaren berme bat eskatu zion Funeraria Hondarribia ehorztetxeari, eta ehorztetxeak onartu egin zuen (folioa: 36). Konpainiak ezarritako eta ehorztetxeak onartutako gutxieneko prezio horrek eragotzi egiten die ehorztetxeei beren zerbitzuen prezioetan lehiatzeko aukera (aseguru-konpainiei zein aseguru-rik gabeko partikularrei dagokienez).

## IV. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

### 1. Itun bidezko amaieraren lege-oinarria

**25.** LDLaren 52. artikulua ezartzen duenez, Kontseiluak, Ikerketa Zuzendaritzak proposatuta, debekatutako akordio eta praktiken inguruko zehapen-prozedura amaitzea ebatzi ahal izango du, baldin eta ustezko arau-hausleek konpromiso batzuk hartzea proposatzen badute, eta konpromiso horien bidez espedientea irekitzea eragin duten jokabideek lehiari zituzten ondorioak konpontzen badira eta interes publikoa behar adina bermatzen bada<sup>6</sup>.

Konpromiso horiek lotesleak dira, eta prozedurari amaiera emango dion ebazpenean txertatzen direnetik aurrera izango dituzte ondorioak. Prozedura artikulua horretan zehazten den moduan amaitzea ezin izango da erabaki LDLaren 50.4. artikuluan aurreikusitako proposamen-txostena aurkeztu eta gero.

Adierazitako artikulua garatuz, LDEaren 39. artikulua ezartzen du Ikerketa Zuzendaritzak, proposatutako txostena aurkeztu aurreko edozein unetan eta debekatutako jokabideak izan dituztenek proposatuta, debekatutako akordio eta jardunbideen arloko zehapen-prozedura bat itun bidez amaitzeko jardunerak hasteko erabaki ahal izango duela. Itun bidezko amaiera hasteari buruzko erabaki hori interesdunei jakinaraziko zaie. Halaber, prozeduraren gehieneko

---

<sup>6</sup> LDLaren zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera, Lehiaren Batzorde Nazionalari eta bertako zuzendaritza-organoei buruz egiten diren erreferentziak, hain zuzen ere eginkizun, administrazio-ahalmen eta prozedurei buruzkoak, autonomia-erkidegoetan arlo horretako eskumenak dituzten instrukzio- eta ebazpen-organoei buruzkoak ere badirela ulertuko da, erreferentzia horiek lege honen 13. artikuluan aurreikusitako eskumeneren ingurukoak direnean. Horregatik, Lehiaren Euskal Kontseiluak Itun bidezko Amaiera erabakitzeke eskumena du.





epearen zenbaketa itun bidezko amaierara arte etenda geratu den adieraziko zaie.

Ustezko arau-hausleek Ikerketa Zuzendaritzari aurkeztuko diote konpromiso-proposamena, Zuzendaritza horrek itun bidezko amaierari buruzko erabakian finkatzen duen epean. Epe hori, edonola ere, hiru hilabetekoa izango da gehienez. Proposamen hori Kontseiluari (jakinaren gainean gera dadin) eta interesdunei (bidezkotzat jotzen dituzten alegazio guztiak egin ahal izan ditzaten) helaraziko zaie.

Ondoren, Ikerketa Zuzendaritzak itun bidezko amaieraren proposamena aurkeztuko dio Kontseiluari, proposamena hartu eta prozedurari amaiera emango dion ebazpenean txerta dezan. Itun bidezko amaieraren proposamena jaso ondoren, Kontseiluak aukera izango du:

- a) Zehapen-espeditatea itundutako amaiera bidez ebazteko (aurkeztutako konpromisoak egokitzat hartuta).
- b) Aurkeztutako konpromisoek espeditatearen xede diren jokabideek lehiari izandako ondorioak behar bezala konpontzen ez dituztela, edota interes publikoa behar bezala bermatzen ez dutela ebazteko. Kasu horretan, epe bat eman ahal izango du, ustezko arau-hausleek Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluari ikusitako arazoak konponduko dituzten konpromiso berriak aurkez diezazkioten. Epe hori igaro ondoren ustezko arau-hausleek konpromiso berririk aurkeztu ezean, eskaeran atzera egin dutela ulertuko da, eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak zehapen-prozedurarekin jarraitzeko eskatuko dio Ikerketa Zuzendaritzari.

## **2. MJGPK aurkeztutako konpromisoen azterketa**

**26.** MJGPK aurkeztutako konpromisoak (2015eko irailaren 22an sartu ziren LEAren Erregistroan) ebazpen honen 1. Eranskinean jasota daude.

**27.** Aseguru Pribatuen Antolamendu eta Ikuskapenari buruzko Legearen Testu Bateginaren 6.1 artikuluko a letraren 19. idatz-zatian, honela definitzen da ehorzketa-asegurua: heriotzaren kasuan prestazioak bermatzeko aseguru-operazioak biltzen dituen aseguru, prestazio horiek aseguru-konpainiak gauzatan ordaintzen dituen edota prestazio horien zenbatekoak "heriotza baten ondoriozko ehorzketa-gastuen batez besteko balioa gainditzen ez duenean"<sup>7</sup>.

---

<sup>7</sup> 6/2004 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 29koa, Aseguru Pribatuen Antolamendu eta Ikuskapenari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena. 267. zenbakiko BOE, 2014ko azaroaren 5koa. Adierazitako salbuespenekin, uztailaren 14ko 20/2015eko Legeak (BOE-A-2015-7897) indargabetzen du. Halaber, hainbat legek aldatzen dute; honako hauek dira: 10/2014 Legea, ekainaren 26koa (BOE-a-2014-6726); 11/2013 Legea, uztailaren 26koa, (BOE-A-2013-8187); 1/2013 Legea, maiatzaren 14koa (BOE-A-2013-5073); 6/2013 Errege Lege Dekretua, martxoaren 22koa (BOE-A-2013-3199); 2/2011 Legea, martxoaren 4koa (BOE-A-2011-4117); 6/2009 Legea, uztailaren 3koa, (BOE-A-2009-11027); 5/2009 Legea, ekainaren



Adierazitako lege-agindua betetzeko, MJGPK konpromisoa hartzen du urtean behin "heriotza baten ondoriozko ehorzketa-gastuen batez besteko baliorako" kalkulatzeko dituen zenbatekoak eskualdeko ehorztetxeei aldi berean jakinarazteko.

Ehorztetxeek aseguru-konpainiak kalkulaturako "ehorzketa-gastuen batez besteko balioa" zein den jakin behar dute, eta aseguru-konpainiak ahalmena du ehorztetxe bat ez kontratatzeke, zifra hori gainditzen badu.

Aztergai dugun kasuan, OCASO konpainiak inguruan ehorztetxe propiorik ez duenez gero, inguruan diharduten ehorztetxeek emango dituzte zerbitzuak.

Hori dela-eta, MJGPK batez besteko prezioa eman beharko die ehorztetxe guztiei, eta zerbitzuak parametro horien barruan ematen dituzten ehorztetxeak kontratatu beharko ditu.

Proposatutako konpromisoa hartzean, inguruko ehorztetxe guztiek konpainiari zerbitzua zer preziotan eman behar dioten erabakitzeko informazio egokia eta nahikoa eskuratuko dute aldi berean. Aldibereko komunikazioak tratu-berdintasuna bermatzen die ehorztetxe guztiei.

Aseguru-konpainiak jakinarazitako zenbatekoa gehieneko muga izango da aseguru-konpainia horri zerbitzua eman nahi dion edozein ehorztetxerentzat. Egoera horrek inguruko ehorztetxeen arteko lehiakortasuna bultzatzen du.

Konpromiso horrek, alde batetik, tratu-berdintasuna bermatzen die ehorztetxeei (informazioaren aldibereko komunikazioa), eta, bestetik, lehiakortasuna sustatzen du.

**28.** MJGPK konpromisoa hartzen du ehorztetxeei gutxieneko prezio baten inguruko konpromisorik ez eskatzeko.

Horrelako klausulak ezartzean, MJGPK baldintzatu egiten du enpresek merkatuan bidea egiteko har lezaketen enpresa-estrategia, ehorztetxeek gainerako aseguru-etxeei eta erabiltzaile partikularrei kobratuko dizkieten prezioak kontrolatzen baititu, eta prezio horietan eragiten baitu.

---

29koa (BOE-A-2009-10751); 22/2007 Legea, uztailaren 11koa (BOE-A-2007-13411); 21/2007 Legea, uztailaren 11koa (BOE-A-2007-13410); 13/2007 Legea, uztailaren 2koa (BOE-A-2007-12870); 44/2006 Legea, abenduaren 29koa (BOE-A-2006-22950); 11/2006 Legea, maiatzaren 16koa (BOE-A-2006-8636); 20/2005 Legea, azaroaren 14koa (BOE-A-2005-18668); 5/2005 Legea, apirilaren 22koa (BOE-A-2005-6561). Akats-zuzenketa 2005eko otsailaren 2ko 28. zenbakiko BOEn (BOE-A-2005-1666). Testu bateratua: [https://www.boe.es/diario\\_boe/txt.php?id=BOE-A-2004-18908# analisis](https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2004-18908# analisis) (ebazpen honetan aipaturako webgune guztietan, azken kontsulta-data 2016ko urtarrilaren 19a da).

---



Horrelako konpromisoek inposatzen dituenari egiten diote mesede desegokiro, arazo larriak sortzen dituzte merkatuan, eta kalteak eragiten dizkiete zerbitzuen erabiltzaileei<sup>8</sup>.

Jokabide horrek lehia mugatzen du berez. Horregatik, jokabide hori berehala desagerrarazteak merkatuko lehia-baldintzak berrezartzea eragingo du.

**29.** MJGPk konpromisoa hartzen du enpresa lehiakide orori buruzko merkataritza-informaziorik ez helarazteko.

Konpromiso hori ezinbestekoa da lehiaren jardunbide mugatzailea amaitzeko.

MJGPk, aseguru-agentea eta ehorztetxe bateko bazkidea den heinean, inguruko ehorztetxeen prezioei eta beste merkataritza-baldintza batzuei buruzko informazioa du eskuragarri. Informazio hori akziodun den ehorztetxeari (edo beste edozein ehorztetxeri) mesede egiteko erabiltzea kaltegarria da, berez, lehiarako, merkatuarentzat, lehiakideentzat eta erabiltzaileentzat.

LDLak debekatu egiten du informazioa elkartrukatzeko jardunbidea. Enpresen informazio estrategikorik ez igortzeko konpromisoaren bidez, jardunbide horrek merkatuan sartu zuen lehiaren muga desagertu egingo da. Era horretan, merkatuko lehia libre eta leialaren baldintzak berrezarriko dira.

**30.** MJGPk konpromisoa hartzen du polizak izenpetzeko unean jardun-protokolo bat ezartzeko.

OCASO konpainiako agenteak izenpetutako kontratuek informazio-eranskin bat izango dute txertatuta, eta, bertan, eskualdean diharduten ehorztetxeak egongo dira zerrendatuta, ehorztetxe bakoitzak agentziari eskaintzen dizkion zerbitzuak zehaztuta. Eranskin horretan, zerbitzu bakoitzari uko egiteak erabiltzaileari ekarriko liokeen prezio-jaitsiera aipatuko da esanbidez. Eranskinean, halaber, erabiltzaileak aseguraturako zenbatekoaren eta zerbitzuaren kostu errearen arteko aldea jasotzeko duen eskubidea aipatuko da esanbidez.

<sup>8</sup> Bidezkoa da Europako (Frantzia, Italia eta Suedia) lehiaren hainbat agintarik bidaia-agentzia lehiakideei antzeko klausula bat eskatzeagatik Booking.com konpainiaren aurkako espedienteak ebazteko duela gutxi hartutako konpromiso-akordioa aipatzea.

Ikus Lehia eta Merkatua Bermatzeko Italiako Agintaritzaren 2015eko apirilaren 21eko erabakia, honako honetan: [AGCM http://www.agcm.it/trasp-statistiche/doc\\_download/4809-i779chiusura.html](http://www.agcm.it/trasp-statistiche/doc_download/4809-i779chiusura.html) (azken kontsulta 2015eko azaroaren 3an); Lehiaren Suediako Agintaritzaren 2015eko apirilaren 15eko erabakia, honako honetan: [KKV, http://www.kkv.se/globalassets/english/news/13\\_596\\_bookingdotcom\\_eng.pdf](http://www.kkv.se/globalassets/english/news/13_596_bookingdotcom_eng.pdf); Lehiaren Frantziako Agintaritzaren 2015eko apirilaren 21eko 15-d-6 zenbakiko erabakia, Booking.com BV, Booking.com France SAS eta Booking.com Customer Service France SAS sozietateek hotelen online erreserben sektorean agertutako jardunbideei buruzkoa, honako honetan: <http://www.autoritedelaconurrence.fr/pdf/avis/15d06.pdf>.



Agentziak poliza bidez aseguratutako zenbatekoetatik gorako prezioak dituzten ehorztetxeak baino ezin izango ditu zerrendatik kendu.

Proposatutako konpromisoak, nolana ere, erabiltzaileei aseguru-kontratua egitean beren eskubideen berri behar bezala emango zaiela bermatzen du. Informazio horren arabera, erabiltzaileek zerbitzua eskaintzen duten ehorztetxeen prezioak konparatu ahal izango dituzte, baita ehorztetxeek erabiltzaile partikularrei jarritako prezioak ere, aseguru baten titularrak izateagatik jasotzen duten deskontua kontuan hartuta. Horrela, beraz, baldintzatzaile ekonomikoak behar bezala ezagututa hartu ahal izango dituzte kontratazio-erabaki guztiak<sup>9</sup>.

Informazio-eranskina poliza izenpetzen dutenek sinatuko dute, eta kopia bat eduki ahal izango dute bi aldeek. Bi aldeek informazio-eranskina sinatzeak eta espedientean kopia bat gordetzeak aldeari bere eskubideen berri behar bezala ematea bermatuko du.

**31.** MJGPK konpromisoa hartzen du heriotza gertatzen den unean beste protokolo espezifiko bat landu eta betetzeko.

Horren arabera, dagokion eskualdean diharduten ehorztetxeen zerrenda bilduko duen dokumentu bat eman beharko die senideei (edo gorpuarekin zer egin erabakitzeke ahalmena duten pertsoneri). Dokumentu horretan, ehorztetxe bakoitzak agentziari eskaintzen dizkion zerbitzuak zehaztuko dira, eta zerbitzu bakoitzari uko egiteak erabiltzailearentzat prezioan izango duen jaitsiera adieraziko da. Halaber, aseguratutako zenbatekoaren eta zerbitzuaren kostu errearen arteko aldearen berri erabiltzaileak jasotzeko duen eskubidea aipatuko da esanbidez. Dokumentu hori loteslea izango da, eta sinatu egin beharko da, partikularrari emandako informazioa osatua izan dela bermatzeko.

Dokumentuak, gainera, heriotza gertatzean senideak honako alderdi hauei buruzko informazio nahikoa jasoko duela bermatuko du:

- polizak estalitako zerbitzuak, zehatz-mehatz
- kontrata daitezkeen ehorztetxeak

<sup>9</sup> Aseguru-erakundeentzako antolatamendu, ikuskapen eta kaudimenari buruzko ekainaren 14ko 20/2015 Legearen (168. zenbakiko BOE, 2015eko uztailaren 15ekoa) azken xedapenetako lehenak Aseguru Kontratuari buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legea aldatzen du hainbat alderditan (2016ko urtarrilaren 1ean jarri zen indarrean). III. tituluaren barruan, "Heriotza- eta mendetasun-aseguruak" izeneko bosgarren atal bat gaineratu da. 106 bis artikulua esanbidez jasotzen duenez, aseguratutako zenbatekoaren eta aseguratzaileak emandako zerbitzuaren kostuaren arteko aldea hartzaileari dagokio, edo, halakorik ezean, jaraunslerei. 106 quater artikulua, bestalde, aseguru-erakundeek zerbitzu-emailea aukeratzeko askatasuna bermatuko die aseguratuei, kontratuan ezarritako mugen eta baldintzen barruan. Kasu horietan, aseguru-erakundeak aukeratzeko benetako askatasuna bermatuko duen zerbitzu-emaileen zerrenda bat jarri beharko du aseguruaren eskura, erraz eskuratzeko moduan, esanbidez zerbitzu-emaile bakarra aurreikusten duten kontratuen kasuan izan ezik.



- ehorztetxe bat edo bestea kontratatzeak dakarren prezio-jaitsiera
- zerbitzu bati edo gehiagori uko egiteak dakarren prezio-jaitsiera.
- ehorztetxea aukeratzeko duen eskubidea
- zerbitzuaren kontratazio partikularra aukeratzeko duen eskubidea
- aseguratutako zenbatekoa edota emandako zerbitzu zehatzaren kostu errealaren eta aseguratutako zenbatekoaren (baldin badago) arteko aldea jasotzeko duen eskubidea

### **3. TABISAk aurkeztutako konpromisoak**

**32.** TABISAk aurkeztutako konpromisoak (2015eko uztailaren 10ean sartu ziren LEaren Erregistroan) ebazpen honen 2. Eranskinean jasota daude.

**33.** TABISAk konpromisoa hartzen du titularren senideei aseguru bat eskaintzeko, eta polizak estalitako zerbitzuei buruzko informazio zehatza emango die idatziz, zerbitzu bakoitzari uko egiteak ekarriko duen prezio-jaitsiera esanbidez eta zehatz-mehatz adierazita. Betebehar hori senideak konpainiako laguntzailearekin joaten diren ala ez kontuan hartu gabe bete beharko da.

Neurri horren helburua zerbitzuen erabiltzaileei polizak estalitako zerbitzu eta prezioei buruzko informazio zehatza ematea da. Era horretan, eskaintzaile guztiek zerbitzua emateko dituzten baldintza zehatzak konparatzeko, zerbitzu jakin batzuei uko egiteko eta beren erabakien inplikazio ekonomikoak ezagutzeko aukera emango zaie erabiltzaileei.

Gainera, zerbitzuek aseguruarekin eta asegururik gabe dituzten prezioen desberdintasuna zein den jakin ahal izango dute erabiltzaileek, eta erabakiak ongi informatuta hartu ahal izango dituzte. Hori dela-eta, konpromiso hori abantaila handia da interes orokorrerako.

**34.** Edozein aseguraturen zerbitzuak aseguru-konpainiari eskainitako prezioan fakturatzeko konpromisoa (bezeroak kudeaketa bere kabuz egiten duen kontuan hartu gabe) erabakigarria da espedientearen itun bidezko amaiera balioestean.

Gertakariak Zehazteko Agirian azaldu denez, OCASO konpainiaren polizaren baldintza orokorretan xedatutakoari jarraituz, formalki erabiltzaileek eskubidea dute konpainiak (kasu honetan MJGPK) hautatutakoaz bestelako ehorztetxe bat aukeratzeko.

Aseguru-konpainien jardunbidearen ondorioz, zerbitzuen erabiltzaileek ez dakite ehorztetxeek aseguru-konpainiei zer prezio jartzen dizkieten, eta, beraz, ez dakite norberaren izenean kontratatzeak nolako inplikazio ekonomikoak dituen.



TABISAk hartutako konpromisoaren ondorioz, nabarmen murriztuko da aseguru-agenteeek eskaria desbideratzeko duten ahalmena. Hori dela-eta, lehia areagotzen duela eta erabiltzaileei mesede egiten diela esan daiteke.

**35.** TABISAk konpromisoa hartzen du OCASO konpainiari aseguratuarentzako zerbitzuengatik igorri beharreko fakturaren proformako dokumentu bat aseguratu bakoitzaren senideari emateko. Era horretan, OCASO konpainiak ehorztetxeari ordaindu beharreko kostua zenbatekoa den jakingo du bezeroak. Sistema horren bidez, ehorztetxeak bere garaian eman zion informazioa kobratutakoarekin eta aseguru-etxeak bere konpromiso propioak betez eman dion informazioarekin bat datorrela egiaztatu ahal izango du erabiltzaileak (eta LEAk, zaintzan).

Konpromiso horrek sendotu egiten ditu ehorztetxera OCASO konpainiaren aseguru batekin jotzen duten bezeroen eskubideak (eta bezero horiek dira informazio hori edukitzeko interesik handiena dutenak, konpainiako agentearen eta TABISAren arteko lotura kontuan hartuta), eta ebazpen honetan lortutako konpromisoen eraginkortasuna orokorrean egiaztatzeko aukera ematen du.

**36.** TABISAk konpromisoa hartzen du partikularrei zerbitzuak emateko eskaintako prezioak jendaurrean jartzeko.

Konpromiso horrek areagotu egiten du sektoreko gardentasuna, eta ehorztetxe bakoitzak eskaintzen dituen zerbitzuak zehatz-mehatz konparatzeko eta kontratazioari lotutako erabakiak ongi informatuta hartzeko aukera ematen die erabiltzaileei.

**37.** TABISAk konpromisoa hartzen du aseguru-konpainiekin edo haietako agenteekin eksklusiboki kontraturik ez izenpetzeko, eta agentearen edo aseguru-konpainiaren identitatea kontratatzeko garaian faktore garrantzitsutzat ez hartzeko.

Konpromiso hori egokia da akordioa osatzen duten alderdiek aseguru-konpainien eta ehorztetxeen artean zerbitzuak eksklusiboki emateko akordioen bidez merkatuaren funtzionamendu egokia zaildu ez dezaten, hainbat aseguru-konpainiatako agenteak aldi berean TABISA ehorztetxearen titularrak direla kontuan hartuta.

Konpromiso horren bidez, lehia-baldintzak ez dira murriztuko merkatuan, eta hori mesedegarria da zerbitzuen erabiltzaileentzat.

**38.** TABISAk LEAri OCASO konpainiarekin edo haren agenteekin izenpetzen dituen kontratuak, edota, halakorik ezean, eskaintzen dizkien aurrekontuak



bidualtzeko konpromisoaren bidez, aurkeztutako gainerako konpromisoak behar bezala zainduko dira.

#### **4. Aurkeztutako konpromisoerik buruzko ondorioak**

**39.** Aurkeztutako konpromisoak onargarritzat hartzen dira. Izan ere, alde batetik, espedientea eragin zuten lehiaren inguruko jokabide murriztaileak desagertu egingo dira, eta, bestetik, interes orokorrerako onura sortuko da, lehiatz gain erabiltzaileek ehorzketa-zerbitzuen hornitzailea erabakitzeko aukera erreala bultzatuko baita.

Konpromiso horien bidez, aseguru-agenteak eskaria desbideratzeko zuen ahalmena desagertuko da. Halaber, inguruko ehorztetxe guztiek konpainiari zerbitzua zer prezioan eman behar dioten erabakitzeko informazio egokia eta nahikoa aldi berean eskuratuko dutela ziurtatzen dute. Aseguru-konpainiak jakinarazitako zenbatekoa, Legeak baimentzen duenez, gehieneko muga izango da aseguru-konpainia horri zerbitzuak eskaini nahi dizkion edozein ehorztetxerentzat. Ehorztetxe guztiek gehieneko muga berdina izateak ehorztetxeen arteko lehia bultzatzea dezake aseguru-konpainiari dagokionez. Konpromisoen bidez, gainera, ez da informaziorik elkartrukatuko lehiakideen artean, aseguru-konpainiak Legeak babestutako gehieneko prezioaren baldintzak beteko dituen ehorztetxeak kontratatuko dituela bermatuko da, eta aseguru-konpainiak eskatzen zuen gutxieneko prezioaren eskakizuna desagertuko da.

Egoera horrek merkatuan sortzen duen gardentasun-mailan, erabiltzaileek beren ekintzen ondorioerik buruz ongi informatuta har ditzakete kontratazio-erabakiak (zerbitzu batzuei edo besteei buruzkoak, ehorztetxearen –aseguru kontratatu ondoren– eta aseguru bat kontratatzearen komenigarritasunaren arabera).

Ondoriozta daitezke, beraz, aurkeztutako konpromisoek espedientea irekitzea eragin duten lehia-arazoak konpontzen dituztela eta interes orokorrerako ondorio positiboak dituztela.

**40.** Aztertu beharra dago salatzaileak adierazitakoari jarraituz espedientearen izapidetze-egoera aurreratuaren ondorioz alderdiek egindako proposamena baztertu behar den ala ez<sup>10</sup>. Izan ere, lehiaren agintariek itun bidezko amaiera

---

<sup>10</sup> Horri dagokionez, adierazi beharra dago Lehiaren Batzorde Nazionalak (LBN) berak eta haren ondorengoak (Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak –MLBN–) ere, zirkunstantziaren arabera, bidezkotzat hartu dutela espedienteak itun bidezko amaiera bidez amaitzea, ordurako Gertakariak Zehazteko Agiria alderdiei jakinarazi bazitzaieen ere. Ikus, besteak beste, desagertutako LBNren Ebazpena SANC 07/2011-API espedientearen, eta, berrikiago, MLBNren Ebazpena S/DC/502/14 ORONA/EXCELSIOR espedientearen; espediente





bat onartzeko garaian balioetsi beharreko alderdietako bat administrazioaren eraginkortasunaren printzipioa betetzea da, eta, horren arabera, espedienteak ebazteko epeak laburtzearen inguruko balioespen positiboa egiten da<sup>11</sup>. Auzitegiek zehapen-prozedurak itun bidezko amaierarekin amaitzeko aukerari buruzko iritzia ere eman dute, eta ados agertu dira, prozedura horiek epe laburragoan amaitzeak baliabide publiko mugatuak gainerako enpresa eta kontsumitzaileen mesedetan legez kontrako beste ekintza batzuk ikertu eta izapidetzera bideratzeko aukera ematen baitu<sup>12</sup>.

Egia da prozesu- eta administrazio-ekonomiako argudioen arabera komeni dela itun bidezko amaierak administrazio-espedientearen hasierako faseetan hastea, baina egia da, halaber, Legeak aukera ematen duela alderdiek eskatzeko eta administrazio-organoak onartzeko, ebazpen-proposamena eman arte.

Erabakia administrazio-organoak hartu behar du, eta, horretarako, amaiera mota horren bidez lortutako onurak haztatuko ditu; nolana ere, legezko betekizunak bete behar dira onartzeko. Kasu honetan, legezko epeen barruan aurkeztutako konpromisoei esker, ehorzketa-zerbitzuen erabiltzaileentzat oso kaltegarria den jardunbide bat desagertuko da. Izan ere, merkaturaren lehiera irekiko da, eta onura nabarmenak lortuko dira, hala nola prozesu-ekonomia (garrantzitsuenetako bat ez bada ere).

Lehia Defendatzeko Legeak ez du ezartzen prozedura bati itun bidezko amaiera bidez amaiera ematen dion ebazpen batek espedienteko interesdun guztien adostasuna behar duenik, betiere alderdien defentsarako eskubidea bermatzen bada. Beraz, salatzaileak ebazpen honetan ezeztatuta geratu diren arrazoiengatik aurkeztutako konpromisoekiko onarpena ez agertzeak ez du eraginik espedientearen.

**41.** Dokumentazioa aurkezteko epeei dagokienez, LEKen ustez beharrezkoa da alderdiek hartutako konpromisoen betetzea gutxienez urtean bitan egiaztatzea, ebazpen hau eman eta ondorengo 24 hilabeteetan.

---

horietan hasi ziren itun bidezko amaiera lortzeko izapideak, agiriak jakinarazi ondoren. \$\$\$\$ \$\$\$\$ Bi kasuetan, itun bidezko amaiera bidez amaitu ziren espedienteak.

<sup>11</sup> Alderdi hori zehapen-espedienteen itun bidezko amaierari buruzko Komunikazioan jasota dago; bertan adierazten denez, "oro har, zehapen-espedienteen itun bidezko amaiera instrukzio-fasean zenbat eta lehenago aurkeztu, orduan eta bideragarriagoa izango da". LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA. *Comunicación sobre Terminación Convencional de expedientes Sancionadores*, LBNK 2011ko azaroaren 28an onartua [http://www.minhap.gob.es/Documentacion/Publico/SGT/LEYES/DEFENSA\\_COMPETENCIA/IA\\_8\\_terminaci%C3%B3n\\_%20convencional.htm](http://www.minhap.gob.es/Documentacion/Publico/SGT/LEYES/DEFENSA_COMPETENCIA/IA_8_terminaci%C3%B3n_%20convencional.htm).

<sup>12</sup> Auzitegi Nazionalaren epaia. Auzien Sala, 4732/2013 zenbakiko errekurtsua, 2013ko urriaren 31koa.



Ordenamendu juridikoa betetzeko jokabide-betebeharrek, jakina, amaiera-datarik ez badute ere, denbora-muga bat ezarri behar da enpresek LEAri kontuak emateko duten betebeharrean.

Hori dela-eta, TABISAk eta MJGPk ebazpen honen 1. eta 2. Eranskinetan jasotako konpromiso guztiak bete izana egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute 2016. eta 2017. urteetako uztaila eta 2017. eta 2018. urteetako urtarrila amaitu aurretik.

**42.** Azkenik, gogorarazi beharra dago LDEaren 39.7 artikuluari jarraituz, itun bidezko amaierari buruzko ebazpen batean bildutako konpromisoak eta betebeharrak ez betetzea arau-hauste oso larritzat hartuko dela, LDLaren 62.4.c artikuluan ezarritakoaren arabera. Halaber, behartzeko isunak ezarri eta, hala badagokio, zehapen-espeditente bat ireki ahal izango da LDLa urratzeagatik.

LEK honek, goian azaldutakoa kontuan izanik, honako hau

## V. EBAZTEN DU

**LEHENA.** MJGP jaunari eta TANATORIO DEL BIDASOA SARI irekitako zehapen-prozeduraren itun bidezko amaiera loteslea erabakitzea Lehia Defendatzeko Legearen 52. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, eta, beraz, espeditente honetan onartutako konpromisoen betebehar-izaera onartzea.

**BIGARRENA.** TABISAri eta MJGPri ebazpen honen 1. eta 2. eranskinetan jasotako konpromiso guztiak bete izana egiaztatzen duen dokumentazioa 2016. eta 2017. urteetako uztaila eta 2017. eta 2018. urteetako urtarrila amaitu aurretik igor dezaten agintzea.

**HIRUGARRENA.** LEAren Ikerketa Zuzendaritzari MJGPren eta TANATORIO DEL BIDASOA SAREN betebeharrak (ebazpen honen 1. eta 2. Eranskinetan jasotakoak) behar bezala betetzen direla zain dezan agintzea.

Jakinaraz bekio ebazpen hau Ikerketa Zuzendaritzari, eta jakinaraz bekie MJGPri, TANATORIO DEL BIDASOA SARI eta gainerako interesdunei, eta adierazi behar zaie ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen duela, eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezaketela EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, aipatu jakinarazpenetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Bilbo, 2016ko urtarrilaren 20a



## 1. eranskina: MJGPren KONPROMISO-PROPOSAMENA

**LEHENA.-** MJGPk "heriotza baten ondoriozko ehorzketa-gastuen batez besteko balioa" zehazteko kalkulatu dituen zenbatekoak eskualdeko ehorztetxeei aldi berean jakinarazi beharko dizkie urtean behin, Aseguru Pribatuen Antolamendu eta Ikuskapenari buruzko Legearen Testu Bateginaren 6.19 artikuluari jarraituz, ehorztetxeek beren zerbitzuak zer preziotan eskainiko dituzten erabakitzeke behar adinako informazioa izan dezaten.

MJGPk ehorztetxe bakoitzari igorritako dokumentua eta hartu izanaren egiaztagiria igorriko dizkio LEAri hilabete bateko gehieneko epean, ehorztetxe bakoitzari jakinarazten zaionetik aurrera zenbatzen hasita.

**BIGARRENA.-** MJGPk –eta bere langileek– ez die eskatuko ehorztetxeei gutxieneko prezioaren inguruko konpromisorik.

**HIRUGARRENA.-** MJGPk –eta bere langileek– ez die helaraziko ehorztetxeei ehorzketa-zerbitzuak ematen dituen beste edozein enpresari buruzko merkataritza-informaziorik.

MJGPk konpromisoa hartzen du polizak izenpetzeko unean jardun-protokolo bat ezartzeko.

- MJGP agenteak izenpetzen dituen aseguru-kontratuetan, dagokion eskualdean diharduten ehorztetxeen inguruko INFORMAZIO-ERANSKIN bat txertatuko da, ehorztetxe bakoitzak agentziari eskaintzen dizkion zerbitzuak zehaztuta eta zerbitzu bakoitzari uko egiteak erabiltzailearentzat prezioan izango duen jaitziera adierazita. Informazio-eranskinean, halaber, erabiltzaileak aseguraturako zenbatekoaren eta zerbitzuaren kostu errearen arteko aldea jasotzeko duen eskubidearen esanbidezko aipamena egingo da.

Eranskin horrek erabiltzaileak irakurtzeko moduko letra-tamainarekin idatzita egon beharko du, eta bi alderdiek sinatu beharko dute.

Agentziak erabiltzaileak sinatutako dokumentu horren kopia gordeko du, prozeduraren zaintza errazteko.

Agentziak poliza bidez aseguraturako zenbatekoetatik gorako prezioak dituzten ehorztetxeak baino ezin izango ditu zerrendatik kendu.

Polizaren eranskinak ez du kontratu-izaerarik izango, informazio-izaera baizik, ezin baita jakin noiz gertatuko den heriotza eta, beraz, ezta zerbitzu horiek zer baldintza ekonomiko izango dituzten eta une horretan merkatuan zer enpresak parte hartuko duten ere.



MJGPK konpromisoa hartzen du polizak izenpetzeko unean jardun-protokolo bat ezartzeko.

MJGPren Agentziak bideratutako aseguratuen heriotza guztietan, dokumentu bat aurkeztuko zaie hildakoaren senideei (edo gorpuarekin zer egin erabakitzeko ahalmena duten pertsoneri). Dokumentu hori partikularrari emango zaio eta hark sinatu beharko du, agentziak espedienteari kopia bat gaineratu ahal izan diezaion, eta, era horretan, LEAk konpromiso horiek zaindu ahal izan ditzan.

Dokumentuak honako informazio hau bildu beharko du:

- Dagokion eskualdean diharduten ehorztetxeen zerrenda, ehorztetxe bakoitzak agentziari eskaintzen dizkion zerbitzuak zehaztuta eta zerbitzu bakoitzari uko egiteak erabiltzailearentzat prezioan izango duen jaitsiera adierazita.

Zerrenda hori loteslea izango da zerrendan sartuta dauden ehorztetxeei dagokienez zein bakoitzaren prezioari dagokionez.

- Erabiltzaileak aseguratutako zenbatekoaren eta zerbitzuaren kostu errealaren arteko aldea jasotzeko duen eskubidearen esanbidezko aipamena.

- Erabiltzaileak zerrendan sartuta dauden ehorztetxeen zerbitzuak ez erabiltzeko duen eskubidearen esanbidezko aipamena. Kasu horretan, agentziak hildako aseguratua babesten duen polizaren baldintza partikularretan agertzen den "aseguratutako zenbatekoa" emango diela jakinaraziko zaie legezko jaraunslerei, eta zenbatekoa garaiz eta taxuz, eta partikularrek zuzenean kontratatzeko aukera eragozteko bidea ez izateko moduan ematen dela ziurtatuko da.



Lehiaren  
Euskal Agintaritza

Autoridad Vasca  
de la Competencia

## **2. eranskina: TANATORIO DEL BIDASOA SAREN KONPROMISO- PROPOSAMENA.**

**LEHENA.-** TABISAren jarduerari lotutako konpromisoak

TABISAK honako konpromiso hauek hartu ditu:

1) Heriotza-aseguruen merkaturian diharduen ezein aseguru-konpainiarekin (edo haien agenteekin) TABISAK ematen dituen zerbitzuetan edozein eskusibabeskubide ematea edo bere gain hartzea dakarren akordio edo kontraturik ez egitea.

Illo horretan, TABISAK konpromisoa hartzen du agentearen edota hark lan egiten duen aseguru-konpainiaren izaera edo identitatea TABISAren zerbitzuak kontratatzeko garaian faktore garrantzitsua ez izateko. Era horretan, ez da tratatu diskriminatzailearik izango heriotza-aseguruen konpainien ehorzketa-zerbitzuen eskarian.

2) LEARI TABISAK Seguros OCASO SA, Compañía de Seguros y Reaseguros ("OCASO") konpainiarekin edo haren edozein agenterekin izenpetzen dituen kontratu guztiak edo, halakorik ezean, OCASORI eskainitako aurrekontuak igortzea.

Informazio hori bi alditan igorriko da, lehena TABISArentzako konpromiso lotesleak deklaratu dituen erreferentziazko espedienteak ebatzi eta lehen hiruhilekoaren barruan, eta bigarrena bigarren hiruhilekoaren barruan.

Era horretan, TABISAren zerbitzuen kontratazioak (OCASO konpainiak egindakoak) aurreko puntuan aurreikusitakoa betetzen duela egiaztatzeko aukera eta beharrezkoak diren baliabideak izango ditu LEAK.

**BIGARRENA.-** Erabiltzaile eta aseguratuak zuzendutako publizitate eta informazioari lotutako konpromisoak.

TABISAK honako konpromiso hauek hartu ditu:

3) TABISAK partikularrentzako zerbitzuetan eskainitako prezioak jendaurrean jartzea.

4) Aseguru baten titularrak diren erabiltzaileei (ehorztetxera beren kabuz jotzen dutenei zein agentearekin joaten direnei) kontratatutako polizek estalitako zerbitzu bakoitzari buruzko informazio zehatza eskaintzea (oinarrizko zerbitzua,



ertaina edo goi-mailakoa, edota etorkizunean aseguru-erakundeei eskaintzen zaizkien beste zerbitzu batzuk), eta eskaintzaosatzen duten zerbitzuetako bakoitzari uko egiteak prezioan dakarren jaitsiera esanbidez eta zehatz-mehatz aipatzea (aseguru-erakundeari jaulki beharreko fakturan agertuko da).

Aurreko informazioak jendaurrean jartzearen inguruko publizitatea TABISAk Irunen eta Hondarribian dituen establezimenduetan horretarako gaitutako lekuan era garbi eta egokian eta ongi ikusteko moduan jarriko da (panelean, arbelean eta abar), eta berehalako eta doako kontsulta eskainiko da establezimendu horietan.

5) Heriotza-aseguru bat duten bezero eta erabiltzaileei dagokienez, polizak estalitako zerbitzuak dagokion aseguru-konpainiari eskainitako prezio berean fakturatzea, baita partikularrak kudeaketa bere kabuz egitea erabakitzen badu ere.

6) OCASO konpainiarekin heriotza-aseguru bat duten bezero eta erabiltzaileei dagokienez, TABISAk OCASO konpainiari (edo haren agente bati) aseguratuarentzako zerbitzuengatik igorri beharreko fakturaren proformako dokumentu bat landu eta ematea, erabiltzaileek TABISAk emandako zerbitzuak aseguru-konpainiari eragin dion kostuaren berri izan dezaten.

Aurreko 4. eta 5. puntuetan zerrendatutako dokumentuak aseguraturako bezero bakoitzaren espedientean gordeko dira, LEAk eskatzen dituenean eskuragarri egon daitezten.